

EUSKARA EUSKAL HERRIAN

Gaur egun, niretzako, Euskal Herrian oso arazo larria dugu. Euskal Herriko biztanleek beraien herriko hizkuntza (euskara) gero eta gutxiago mintzatzen dute, batez ere, hiri handietan. Herri txikietan euskarak oraindik tinko jarraitzen duela esan daiteke, baina hiri handietan, Donostian, Bilbon, Barakaldon eta Gasteizen, adibidez, euskara ia guztiz galdua dagoela esango nuke, bai gazteetan, eta pixkanaka, pertsona zaharretan ere bai. Horregatik, Euskara Batzordeak antolatutako jardunaldietara joatea erabaki dut, arazo larri honetaz jabetu ondoren.

Nire herria, Azpeitia, duela 5 urte, Euskal Herrian euskaraz gehien mintzatzen zenetariko herria zen, %97rekin. Aurreko urtean, ordea, proba berriro egin zuten eta datuek %80a zela adierazi zuten. Ikusten den bezala, 4 urtetan %17ra jaitsi zen datua, eta hori, euskararentzako oso kaltegarria da, zalantzarik gabe. Jende askok galdetzen du ia arazo hau nondik datorren eta horren erantzuna aurkitzea oso zaila da; batzuk esaten dute, etorkinen arazoa dela, beste batzuk, berriz, Hezkuntzak euskara gutxiegi bermatzen duela...

Hau guztia jakinik, eta euskararen etorkizuna hobetzea nahi badugu, nire ustez, inposaketa litzateke bidea. Inposaketa esaten dudanean, araudi zorrotzak jartzeaz ari naiz: Hezkuntzan euskarari garrantzi gehiago ematea eta kale mailan euskara mintzatzera derrigortzea, esaterako. Badakit hau guztia irakurrita diktadura bat emango lukeela, baina euskara arriskuan dago eta gure herriko hizkuntza ez dugu utzi behar hiltzen, arbasoek borrokatu zuten bezala, orain guri tokatzen zaigu borrokatzea.

Bereket Gabilondo Eskudero

Azpeitiko Urola Ikastola BHI

DBH 4C